

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA INTERNACIONAL DE LOS DERECHOS HUMANOS

Egungo testuinguru global konplexuan, Giza Eskubideen 1948ko Adierazpen Unibertsalaren 75. urteurrena dela eta, gizaki guztien bizi eskubidea da Giza Eskubideetan lehena eta hortik garatzen dira gainerakoak.

En el complejo contexto global actual, coincidiendo con el 75 aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos de 1948, el derecho a la vida de todas las personas es el primero de los Derechos Humanos a partir del cual se van desarrollando todos los restantes.

Ekonomiaren globalizazioak kapitalen zirkulazio askea ziurtatu du munduko alde askotan baina ez dira era berean globalizatu pertsona guztien Giza Eskubideak. Hau honela, gerrate, indarkeria amaigabe eta paralisi politikoko egoerak jasaten ditu munduak oraindik.

La globalización económica ha asegurado la libre circulación de capitales en buena parte del mundo sin terminar de globalizar los Derechos Humanos de todas las personas. Y con ello, el mundo sigue asistiendo a distintas situaciones de guerra, violencia endémica y parálisis política.

Bizkitartean, Nazio Batuen ikerketen eta giza garapenari buruzko bere azken txostenaren arabera, gizadiaren %20, Mendebaldea, alegia, aberastasunen eta baliabideen %80ren jabe da. Aldiz, gizateriaren beste %80k ondasun eta bitartekoen gainerako %20rekin etsi beharra dauka. Ikerketa eta teknologia guztiaren %94 Mendebaldearen eskuetan dago. Testuinguru bidegabe horretan oinarritzen da gure ongizatearen zati bat Lurraren eta milioika gizon-emakumeren etorkizunaren bizkarretik, pertsona horiek ere eskubide indibidual eta kolektiboen jabe diren arren.

Mientras tanto, de acuerdo con los estudios de la ONU y su último informe sobre desarrollo humano, el 20% de la humanidad, esto es, Occidente, ostenta el 80% de la riqueza y recursos. Por el contrario, el restante 80% de la humanidad tiene que conformarse con el 20% de la riqueza y los recursos existentes. El 94% de toda la investigación y la tecnología se encuentran en manos de Occidente. Un contexto injusto sobre el que se asienta una cuota parte de nuestro bienestar a costa de hipotecar el planeta y el futuro de millones de personas que también son titulares de derechos individuales y colectivos.

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



Hortaz, pentsatzekoa da globalizazioa ez dagoela egiturazko ajeetatik libre eta elkartasun kolektiboaren bidez konpondu behar dugula hutsune hori. Garapenerako eta bakerako eskubidea lotuta dago ezbairik gabe gizakien bizi eskubidearekin. Bizitzeko eskubideak munduan daukan mehatxu handiena gerrateetatik eta pertsonak eta herriak mendean hartzetik datorrelako, batez ere. Gerra, are gerra-ekintza baten mehatxua bera, ezin da bateratu pertsona eta herri guztiek bizitzeko eta duintasunerako duten eskubidearekin.

Con ello, parece necesario considerar que la globalización no está exenta de problemas estructurales que debemos abordar con solidaridad colectiva. La vinculación del derecho al desarrollo y a la paz con el derecho a la vida de las personas es indiscutible. Especialmente, porque la mayor amenaza para el derecho a la vida en el mundo viene representada por las situaciones bélicas y de sometimiento de pueblos y personas por la fuerza. La guerra, incluso la amenaza con una acción bélica, es incompatible con la garantía del derecho a la vida y a la dignidad de todas las personas y pueblos.

Testuinguru global konplexu honetan, eta Giza Eskubideen 1948ko Adierazpen Unibertsalaren 75. urteurrena dela eta, Gipuzkoako Batzar Nagusiek adierazten dute:

En este complejo contexto global y, coincidiendo con el 75 aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos de 1948, Las Juntas Generales de Gipuzkoa manifiestan:

1. 1948ko Adierazpenean aldarrikatutako Giza Eskubideek demokraziaren oinarri gisa dihardute, herriaren agintaritza guztiak gizakien eta hauen eskubideen zerbitzura daudela aitortuz.
2. Giza Eskubideak unibertsalak eta zatiezinak dira, barneko zein nazioarteko edozein aginte erabiltzeko muga positibo gisa. Horrek, nahitaez, berekin darama herri, nazio eta komunitate guztien bakerako eskubidea.

1. Los Derechos Humanos proclamados en la Declaración de 1948 actúan como pilar de la democracia; reconociendo que todos los poderes públicos se encuentran al servicio de las personas y sus derechos.
2. Los Derechos Humanos son universales e indivisibles, como límite positivo al ejercicio de cualquier poder político interno e internacional. Ello incluye necesariamente el derecho a la paz de todos los pueblos, naciones y comunidades.

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL



- | | |
|---|--|
| <p>3. Giza Eskubideen defentsarekiko konpromiso bizia gure eguneroko zereginetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ordezkari politikoak garen aldetik.</p> | <p>3. Nuestro compromiso activo con la defensa de los Derechos Humanos en nuestro quehacer diario, como representantes políticos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.</p> |
|---|--|

Donostian, 2023ko azaroaren 28an

Bozeramailearen sinadura/Firma portavoz
Maddalen Iriarte Okiñena
EH Bildu Taldea

Bozeramailearen sinadura/Firma portavoz
Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola
EA-NV Taldea

Bozeramailearen sinadura/Firma portavoz
Susana García Chueca
ES-SV Taldea

Bozeramailearen sinadura/Firma portavoz
Mikel Lezama Zubeldia
Talde Popularra

Bozeramailearen sinadura/Firma portavoz
Miren Echeveste Lacombe
Talde Misto Elkarrekin Gipuzkoa